

ZEGAMA / Udalak kultur etxea zaharberrituko du urtearen hasierarako

Urtarrilaren amaieran edo otsailaren hasieran bukatuko dituzte lanak eta guztira 294.000 euroko aurrekontua dute

Estitxu Imaz

Hastear daude Zegamako kultur etxea berritzeko lanak. 1984. urtean ireki zutenetik ez dute obrarik egin bertan eta Udalak goitik hasi eta beheraino berritu behar du. Lanak Pedro Iparragirre Eraikuntzak SL enpresak egingo ditu. Urtarril bukaeran edo otsail hasieran bukatuko dituzte. Aurrekontua 294.000 eurokoa da. Udalak %50eko diru laguntzak jasotzea aurreikusten du Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko hainbat sailekin egindako kudeaketen ondorioz.

Jabier Otaegi Kultura, Euskara eta Gazteriako zinegotziak aditzera eman duenez Udala hiru arrazoik bultzatu dute nagusiki kultur etxea berritzera. Irisgarritasuna da arrazoietakoa bat, egungo kultur etxean beheko solairuan soilik bermatzen baita. Kultur etxean igogailua jarriko dute eta irisgarritasuna egoitza osoan bermatuko da. Igogailua jarritakoan eraikuntzak kanpo aldetik itxura desberdina hartuko du, batez ere ekialdetik. Orain daukan terraza galdu egingo du. Igogailuak eta plazak arkitektura aldetik estetika paretsua edukitzea bilatuko dute. Gazteentzako ekipamendu batzuk behar izatea da bigarren arrazoa. Otaegiren arabera Gaztetxokoa eta informazio puntua jarriko ditugu kultur etxean. Horiekin batera zenbait gela ere egokituko ditugu gazteekin beste zenbait ekintza egiteko: tailerrak, ikusentzunezko produkzioak ikusi ahal izateko....

Azkenik, hirugarren arrazoi bezala, eraikuntza zaharberritu beharra aipatu zuen Otaegik, zerbitzuak eta erabilpena hobetuz eta gaurkotuz. Obrak liburutegia berritzeko ere aprobeztatuko dituzte. Liburutegia oraingoa baino operatiboagoa bihurtu nahi dute. Gehien erabiltzen diren liburuak bertan utziko dira eta gainerakoekin biltegi modukoa egingo dute Udalaren lokaletan. Bide batez liburu guztiak aztertu, sailkatu eta katalogatu egingo dituzte. Eusko Jaurlaritzako liburutegien sarean ere sartuko dute Zegamako liburutegia.

KZgunea liburutegiaren barruan kokatuko dute. Kristalezko egitura batekin banatuta egongo da. Sarrera aparte izango du, baina liburutegi aldetik ere sartu ahal izango da bertara. Horrela erabilpen bikoitza emango zaio: KZgunea izango da baina liburutegiko gune informatiko bezala ere erabiliko dute.

Erabilpen handikoa

Kultur etxeari, ireki zutenetik, erabilpen handia eman zaio herrian. Liburutegi zerbitzua eskaintzen da, Tobera musika eskolako saioak (batez

ere instrumentuei dagozkienak) bertan ematen dira, herriko kultur eta kirol taldeentzako zerbitzu orokorra eskaintzen da (fotokopiagailu zerbitzua, egoitza...) eta KZgunea ere bertan dago. Hortik aparte erakusketak, hitzaldiak eta kultur agendaren barruan antolatzen diren ekintzak egiten dituzte han.

Obra hauen ondorioz Udalak bertan eskaintzen dituen zerbitzuak Aitxuri Herri Eskola eta udaletxearen artean banatuko dituzte.

Liburutegia itxita egongo da irailaren 18tik 24ra. Irailaren 25etik aurrera eskainiko da zerbitzua berriz, astelehenetik ostiralera 17:00etatik 19:00etara Aitxuri Herri Eskolako liburutegian.

Fotokopiagailu zerbitzua irailaren 18tik aurrera udaletxeko gela batean kokatuko dute eta udal ordutegian erabili ahal izango da soilik.

Tobera musika eskolak kultur etxean ematen dituen saioak irailaren 25etik aurrera eskolan emango dira, 2006-2007 ikasturtearen amaiera arte. Herriko hainbat taldek udaletxean egin ahal izango dituzte batzarrak. Lekua hartzeko, orain arte bezala, kulturako udal teknikariarekin jarri beharko da harremanetan.

KZgunea lanek dirauten bitartean udaletxeko gela batean jarriko dute. Udaletxeko bulego orduetan egongo da irekita, azaroaren 2tik aurrera. Kultur etxea behin berritu eta gero bere erabilpena antolatu egin beharko dute. Nagusiki gazteentzako ekipamendua izango da, baina erabilpen anitza emango zaie hainbat aretori. Orain arte bezala jarraituko dugu, gure tamainako herri bati dagokion bezala, gehitu du Otaegik.